

## **Euskara ikasteko dirulaguntzak. 2026ko deialdia**

### **SARRERA**

Bilboko Udalak 2026ko euskara ikasteko dirulaguntzen deialdian mantendu egiten ditu 2024ko eta 2025eko deialdietan txertatutako hobekuntzak. Aurten ere herritar guztiei zabaldua egongo da deialdia eta, beraz, Bilbon erroldatuta dagoen eta Euskal Autonomia Erkidegoko euskaltegi homologaturen batean matrikula egin duen orok dauka aukera dirulaguntza eskatzeko.

### **1. ARTIKULUA. DEIALDIAREN HELBURUA**

Deialdi honek arautzen du Bilboko Udaleko Euskarako, Herritarren Arreta eta Partaidetzako, 2030 Agendako eta Nazioarteko Gaietako Sailak 2025-2026 ikasturtean euskara ikastearren emango dituen dirulaguntzak izapidetzeko eta lortzeko prozedura, diru-kopuru aldakorreko hainbanaketa araubidearen bidez.

Deialdi honetan “2025-2026 ikasturtea” da 2025eko ekainaren 1etik 2026ko ekainaren 30era bitarteko aldia.

Helburua da euskararen erabilera sustatzea eta normalizatzea Bilbon, Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren ardatz estrategikoei jarraituta: euskararen jabekuntza, erabilera eta kalitatea. Horrela, Bilboko Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren “Euskararen erabilera sustatzea eta normalizatzea, hizkuntza bizirik mantentzeko” helburua lortzen da.

### **2. ARTIKULUA. AURREKONTUA**

**Aurrekontuaren zenbatekoa:** 700.000 euro.

**Aurrekontuaren kodea:** 2026/00190.

Deialdia onartzen denetik laguntza ematen den arte Udalaren egoera ekonomikoak okerrera egingo

## **Ayudas económicas para aprender euskera. Convocatoria 2026**

### **INTRODUCCIÓN**

El Ayuntamiento de Bilbao mantiene en la convocatoria de ayudas al aprendizaje de euskera de 2026 las mejoras incorporadas en las convocatorias de 2024 y 2025. Este año también estará abierta la convocatoria a toda la ciudadanía y, por lo tanto, podrán solicitar estas ayudas todas las personas empadronadas en Bilbao y que se hayan matriculado en algún euskaltegi homologado de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

### **ARTÍCULO 1. OBJETO DE LA CONVOCATORIA**

Esta convocatoria regula el procedimiento en régimen de prorata por módulos por asignación variable para tramitar y obtener las ayudas económicas que el Área de Euskera, Atención y Participación Ciudadana, Agenda 2030 e Internacional del Ayuntamiento de Bilbao concede por aprender euskera durante el curso 2025-2026.

A los efectos de esta convocatoria se entiende por “curso 2025-2026” el período comprendido entre el 1 de junio de 2025 hasta el 30 de junio de 2026.

El objetivo es fomentar y normalizar el uso del euskera en Bilbao siguiendo los ejes estratégicos del Plan de Acción para la Promoción del Euskera: adquisición, uso y calidad del euskera. De esta manera se contribuye al logro del objetivo del Plan Estratégico de Subvenciones de Bilbao para “Fomentar y normalizar el uso del Euskera con el fin de mantener viva la lengua”.

### **ARTÍCULO 2. PRESUPUESTO**

**Importe presupuestado:** 700.000 euros.

**Código presupuestario:** 2026/00190.

Si desde que se aprueba la convocatoria hasta que se concede la ayuda, la situación económica del

balu, aurrekontua murriztu egingo litzateke defizita saihesteko. Hala ezartzen du, nahitaez, 2/2012 Lege Organikoak.

### **3. ARTIKULUA. ONARTUA IZATEKO BALDINTZAK**

Eskatzaileek baldintza hauek bete behar dituzte:

- 16 urte beteta edukitzea edo 2026an zehar betetzea.
- Bilbon erroldatuta egotea, gutxienez, 2025eko ekainaren 1etik 2026ko ekainaren 30era arte, inolako etenik gabe.
- Euskara-ikasketak egin izana (aurrez aurrekoa/autoikaskuntza) 2025-2026 ikasturtean HABEK homologatutako euskaltegietan.
- Zerga-betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak eta Bilboko Udalarekiko tributu-betebeharrak ordainduta izatea deialdi honetako dirulaguntza emateko prozesu osoan zehar, betebeharra onartzean eta ordaintzean ere bai.

Artikulu honetan adierazitako betekizunak nahitaezkoak dira onuradun izateko. Horietakoren bat bete ezean, baztertzeko arrazoitzat hartuko da.

### **4. ARTIKULUA. APROBETXAMENDUARI BURUZKO ESKAKIZUNAK ETA DIRULAGUNTZAREN ZENBATEKOA**

**4.1.** Ikastaro bakoitzeko matrikularen zenbateko osoa diruz lagunduko da, baldin eta ikastaro horretan gairitu bada, gutxienez, HABEko Curriculumean ezarritako azpimaila bat (A0A0-

Ayuntamiento empeorase, el presupuesto se reduciría para evitar el déficit. Así lo establece, como obligatorio, la Ley Orgánica 2/2012.

### **ARTÍCULO 3. REQUISITOS DE ADMISIÓN**

Las personas solicitantes deberán cumplir los siguientes requisitos:

- Tener cumplidos 16 años o cumplirlos durante el año 2026.
- Estar empadronadas en Bilbao, al menos, desde el 1 de junio de 2025 hasta el 30 de junio de 2026, de forma ininterrumpida.
- Haber cursado estudios de euskera (presencial/autoaprendizaje) en euskaltegis homologados por HABE durante el curso 2025-2026.
- Estar al corriente de las obligaciones fiscales, de la Seguridad Social y tributarias con el Ayuntamiento de Bilbao durante todo el proceso de concesión, reconocimiento de la obligación y pago de la subvención.

Los requisitos expresados en este artículo son necesarios para adquirir la condición de persona beneficiaria. El incumplimiento de alguno de ellos se considerará un motivo de exclusión.

### **ARTÍCULO 4. REQUISITOS DE APROVECHAMIENTO Y CUANTÍA DE LA SUBVENCIÓN**

**4.1.** Se subvencionará el importe total de la matrícula de cada curso, siempre que en dicho curso se haya superado, como mínimo, un subnivel establecido en el Currículum de HABE (A0A0-

C2C2), eta, horrez gain, ikastaro horren guztizko orduen %60ko gutxieneko asistentzia egon bada. Bi betekizunetako bat bete ezean, dirulaguntza ezetsiko da.

**4.2.** Eskatzaile batek 2025-2026 ikasturtean matrikula baterako baino gehiagorako eskatzen badu dirulaguntza, aurreko atalean ezarritako aprobetxamendu-betekizunak (azpimaila bat, gutxienez, gaintitzea eta, gutxienez, %60ko asistentzia izatea) betetzen dituen ikastaro bakoitzaren matrikularen kostua diruz lagunduko da.

Ikasturtean zehar eskatzaile batek euskaltegi berean talde aldaketa izan badu, ikastaro bakartzat hartuko da. Jardun biko ikastaroak (semipresentzialak) ere ikastaro bakartzat hartuko dira.

**4.3.** Deialdi honen barruan sartzen dira ebazpen honetan adierazitako ikastaroak: *Ebazpena, 2025eko irailaren 3koa, HABEko zuzendariarena, zeinaren bidez ezartzen baitira 2025-2026 ikasturtean A1 eta A2 maila ikasten duten ikasleei eta C1 helburu-maila duten 16-18 urteko ikasleei dirulaguntzak emateko prozedura eta baldintzak, eta dagokion deialdia egiten baita.*

**4.4.** Aurrekontuan dagoen zenbatekoa nahikoa ez bada baldintza guztiak betetzen dituzten eskariei ordaintzeko, esleitutako diru-kopurua proportzioan egokituko da.

## **5. ARTIKULUA. ESKARIAK**

**5.1.** Deialdiari buruzko informazioa udalaren web-orrian kontsulta daiteke: [bilbaoeuskaraz.bilbao.eus/dirulaguntzak/](http://bilbaoeuskaraz.bilbao.eus/dirulaguntzak/)

C2C2), y, además, haya habido una asistencia mínima del 60% del total de horas de dicho curso. El no cumplimiento de alguno de esos dos requisitos dará lugar a la denegación de la subvención.

**4.2.** En el caso de que una misma persona solicite la subvención para dos o más matrículas en el curso 2025-2026, se subvencionará el coste de la matrícula de cada curso que cumpla los requisitos de aprovechamiento establecidos en el apartado anterior (superar, como mínimo, un subnivel y tener, como mínimo, un 60% de asistencia).

Si una persona solicitante ha cambiado de grupo, se tratará como un solo curso. Los cursos mixtos (semipresenciales) también se tratarán como un solo curso.

**4.3.** Se incluyen en la presente convocatoria los cursos a los que se refiere la *Resolución de 3 de septiembre de 2025, del director de HABE, por la que se fija el procedimiento y las condiciones de concesión de subvenciones en el curso 2025-2026 a los alumnos y alumnas que cursen los niveles A1 y A2 y a alumnos y alumnas de 16 a 18 años, que tengan como objetivo el nivel C1C1, y se procede a su convocatoria.*

**4.4.** Si el importe presupuestado fuera insuficiente para abonar todas las solicitudes que cumplen los requisitos, la cantidad asignada se adecuará proporcionalmente.

## **ARTÍCULO 5. SOLICITUDES**

**5.1.** La información sobre la convocatoria se puede consultar en la página web municipal: [bilbaoeuskaraz.bilbao.eus/es/subvenciones/](http://bilbaoeuskaraz.bilbao.eus/es/subvenciones/)

“Bilboko Udalaren dirulaguntzak” zabalgarrian.

**5.2. Eskariak aurkezteko epea:** 15 egun baliodun, deialdiaren laburpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera.

**5.3. Eskariak aurkezteko lekua:**

- Udalaren web-orrian: [www.bilbao.eus](http://www.bilbao.eus). Izena emateko epean sarrera eskuragarri egongo da “Agenda” eremutik.
- 39/2015 Legean eta 72/2008 Dekretuan aurreikusitako erregistro eta lekuetan. Horrelakoetan, eskariak Bilboko Udaleko Erregistro Orokorrera (Ernesto Erkoreka plaza 12, 48007 Bilbo) bidaliko dira.

## **6. ARTIKULUA. ESKARIA ETA AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK**

### **1) Eskabide-orria**

Eskaria Udalaren web-orriaren bidez izapidetzen bada, eskaria egiteko formularioa online bete beharko da eta PDF formatuan erantsiko dira artikuluko honetan adierazitako agiriak.

Eskaria erregistro bidez izapidetzen bada, artikuluko honetan adierazitako agiriak aurkeztuko dira, eskabide-orriarekin batera (1. eranskina). Eskabide-orria behar bezala beteta eta sinatuta aurkeztuko da.

### **2) Euskaltegiaren ziurtagiria (2. eranskina).**

Egindako ikastaroei eta ordaindutako kopuruei buruzko eranskin hau euskaltegiak bete beharko du. Ikastaroak euskaltegi batean baino gehiagotan egin dutenek euskaltegi bakoitzeko ziurtagiri bat aurkeztuko dute.

En el desplegable “Ayuda del Ayuntamiento de Bilbao”.

**5.2. Plazo de presentación de solicitudes:** 15 días hábiles, a partir del día siguiente a que se publique el resumen de la convocatoria en el Boletín Oficial de Bizkaia.

**5.3. Lugar de presentación de solicitudes:**

- Por la página web municipal: [www.bilbao.eus](http://www.bilbao.eus). El acceso estará activo en “Agenda” durante el período de inscripción.
- En los registros y lugares previstos en la Ley 39/2015 y en el Decreto 72/2008. En este caso, las solicitudes se remitirán al Registro General del Ayuntamiento de Bilbao (Plaza Ernesto Erkoreka, 12, 48007 Bilbao).

## **ARTÍCULO 6. SOLICITUD Y DOCUMENTACIÓN A APORTAR**

### **1) Impreso de solicitud**

Si se tramita la solicitud mediante la web municipal, se deberá rellenar el formulario de solicitud online y presentar en formato PDF la documentación señalada en el presente artículo.

Si se tramita la solicitud por registro, la documentación señalada en el presente artículo se presentará junto con el impreso de solicitud (Anexo 1) correctamente rellenado y firmado.

### **2) Certificado del euskaltegi (Anexo 2).**

El anexo relativo a los datos de los cursos realizados y cantidades abonadas lo rellenará el euskaltegi. Las personas que hayan realizado cursos en más de un euskaltegi presentarán un certificado por cada euskaltegi.

Ezinbestekoa da ziurtagiri hau aurkeztea.

Barnetegiaren kasuan, matrikularen eta irakaskuntzaren gastuez gain, mantenuaren gastua ere hartuko da kontuan.

Dirulaguntza eskatzeko epea amaitu ondoren eskatzaileak beste ikastaroren bat egiten badu ikasturte honen barruan, aukera izango du dagokion euskaltegiaren edo barnetegiaren ziurtagiria bere espedienteari gehitzeko. Horretarako, erregistro bidez aurkeztu beharko du ekainaren 12a baino lehen.

Eskarian adierazitako datu guztiek bat etorri behar dute euskaltegiaren ziurtagirian adierazitakoekin. Bat ez badatoz, euskaltegiko ziurtagirian adierazitako datuak hartuko dira kontuan.

**3) Eskatzailearen (euskaltegiko ikaslearen) NANaren kopia**, eskaera legezko ordezkariaren bidez (adin txikikoaren gurasoak edo tutoreak aurkeztuta) edo ordezkari boluntarioaren bidez aurkeztu bada.

Eskaera ordezkari boluntarioaren bidez aurkeztu bada, **ordezkaritzan jarduteko baimena adierazi** beharko da.

Era berean, eskatzaileak kontu korrante zenbakia aldatu nahi badu, **NANaren kopia** aurkeztu beharko du.

**4) Finantza-erakundea ez bada Kutxabank, Laboral Kutxa, Caixabank, Banco Santander, BBVA, SabadellGuipuzcoano, Abanca, Bankinter edo Caja Rural de Navarra, banku kontuaren titulartasunaren ziurtagiria** aurkeztu beharko da.

La presentación de este certificado es imprescindible.

En el caso de los barnetegis, además del gasto de matrícula y de enseñanza, también se tendrá en cuenta el gasto de manutención.

Si una vez finalizado el plazo de solicitud de la subvención la persona solicitante realiza algún otro curso durante el presente curso lectivo, podrá incluir el certificado del euskaltegi o barnetegi a su expediente. Para ello deberá presentarlo por registro antes del 12 de junio.

Todos los datos expresados en la solicitud deben coincidir con los señalados en el certificado del euskaltegi. En caso de discrepancia, se tendrán en cuenta los datos expresados en el certificado del euskaltegi.

**3) Copia del DNI de la persona solicitante (del alumno o de la alumna del euskaltegi)**, en el caso de que la solicitud se haya presentado mediante representación legal (por parte del padre, madre o tutor/a) o mediante representación voluntaria.

En el caso de que la solicitud se presente mediante representación voluntaria, se deberá expresar la **autorización para actuar en representación**.

Así mismo, si la persona solicitante quiere modificar el número de cuenta, deberá presentar la **copia del DNI**.

**4) Si la entidad bancaria no es Kutxabank, Laboral Kutxa, Caixabank, Banco Santander, BBVA, SabadellGuipuzcoano, Abanca, Bankinter o Caja Rural de Navarra, se debe aportar el certificado de titularidad de la cuenta bancaria.**

Eskatzailea aurkeztutako banku kontuaren titularra izan behar da. Bakar-bakarrik 2009. eta 2010. urteetan jaiotako eskatzaileen kasuan aurkeztu ahal izango da gurasoa edo legezko ordezkaria titularra den banku kontua.

Eskatzaileak edo bere ordezkariak ez badu aurreko paragrafoan aipatutakoen moduko banku konturik aurkezten, eta dagokion epean zuzentzen ez badu, eskatzailea baztertuta geratuko da.

**5)** Eskatzaileak 2025-2026 ikasturtean zehar euskara ikasteko laguntza ekonomikoa jaso badu beste administrazio edo erakunde publiko zein pribatu batzuen aldetik (adibidez, Osakidetza, Elkargo Profesionalak, enpresa pribatuak...), dagokion dokumentazio justifikatzailea aurkeztu beharko du.

Euskarako Zuzendaritzak ofizioz egiaztatuko ditu ondorengo datuak:

1. Barruko datu-baseen bidez:
  - a. Erroldaren betekizuna.
  - b. Zergarik ez izatea Bilboko Udalarekin.
2. Elkarreragintasun sistemen bidez, dagokion Administrazio eskudunean:
  - a. Zergarik ez izatea Bizkaiko Foru Aldundiarekin.
  - b. Zergarik ez izatea Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiarekin.
  - c. HABEK homologatutako euskaltegietan eskatzaileak izandako aprobetxamendu- eta asistentzia-datuak.

La persona solicitante deberá ser titular de la cuenta bancaria aportada. Únicamente en el caso de las personas solicitantes nacidas en los años 2009 y 2010 se podrá aportar la cuenta bancaria de titularidad de su madre, padre o representante legal.

Si la persona solicitante o su representante no presenta una cuenta bancaria de las mencionadas en el párrafo anterior, y si no lo subsana en el plazo correspondiente, la persona solicitante quedará excluida.

**5)** Si la persona solicitante ha recibido ayuda económica para el aprendizaje de euskera durante el curso 2025-2026 por parte de otras administraciones o entes públicos o privados (por ejemplo, Osakidetza, Colegios Profesionales, empresas privadas...), se debe aportar la documentación justificativa correspondiente.

La Dirección de Euskera comprobará de oficio los siguientes datos:

1. Por medio de las bases de datos internas:
  - a. El requisito de empadronamiento.
  - b. No tener deudas con el Ayuntamiento de Bilbao.
2. Por medio de los sistemas de interoperabilidad, en la Administración competente que corresponda:
  - a. No tener deudas con la Diputación Foral de Bizkaia.
  - b. No tener deudas con la Tesorería General de la Seguridad Social.
  - c. Los datos de aprovechamiento y asistencia que han tenido las personas solicitantes en los euskaltegis homologados por HABE.

Ofiziotako egiaztatze prozedura honen aurka egonez gero, hori adierazten duen idazkia aurkeztu beharko duzu, ondorengo agiriekin batera:

1. Bizkaiko Foru Aldundiaren Ogasun eta Finantzen Saileko agiria, zorrik ez duela ziurtatzen duena.
2. Gizarte Segurantzaren agiria, zorrik ez duela ziurtatzen duena.

Era berean, dirulaguntza deialdi honetan parte hartzeak berarekin dakar eskatzaileak berariaz baimena ematen diola Euskarako Zuzendaritzari aprobetxamenduari eta asistentziari buruzko datuak kontsultatzeko HABEri.

## **7. ARTIKULUA. JARDUERAK JAKINARAZTEA**

Oinarri hauetan jasotako prozedurazko egintzak Bilboko Udaleko Euskarako Zuzendaritzaren webgunean (<https://bilbaoeuskaraz.bilbao.eus/>) argitaratuko dira, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 45.1 b) artikuluan xedatzen duenez, eskatzaileei banan-banan jakinarazi beharrik gabe.

Aipatutako argitalpenean egintza bakoitzari dagozkion epeak zehaztuko dira, adieraziz epearen zenbaketaren hasiera-data.

## **8. ARTIKULUA. EBALUAZIO AURREKO FASEA ETA ZUZENKETAK EGITEKO EPEA**

**8.1.** Instrukzio-organoak onuradun izateko baldintzak betetzen direla egiaztatuko du, automatikoki egiazta daitezkeen eta baloraziorik behar ez duten betekizunak kontuan hartuta. Betekizun horiek 3. artikuluan aipatutakoak dira (onartua izateko baldintzak), eta 6. artikuluan

Si la persona solicitante se opone a este procedimiento de comprobación de oficio, deberá presentar un escrito expresando que se opone a ello, junto con la siguiente documentación:

1. Certificado del Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Bizkaia de no tener deudas.
2. Certificado de la Tesorería General de la Seguridad Social de no tener deudas.

Asimismo, la participación en esta convocatoria de subvención implica que la persona solicitante autoriza a la Dirección de Euskera a consultar los datos de aprovechamiento y asistencia a HABE.

## **ARTÍCULO 7. NOTIFICACIÓN DE ACTUACIONES**

Los actos procedimentales previstos en las presentes bases se publicarán en la página web de la Dirección de Euskera del Ayuntamiento de Bilbao (<https://bilbaoeuskaraz.bilbao.eus/>), de conformidad con lo previsto en el art. 45.1 b) de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, sin necesidad de realizar la notificación individualizada de los mismos.

En dicha publicación se hará referencia a la fecha de inicio del cómputo de los plazos que correspondan.

## **ARTÍCULO 8. FASE DE PREEVALUACIÓN Y PLAZO DE SUBSANACIÓN**

**8.1.** El órgano instructor verificará el cumplimiento de los requisitos necesarios para adquirir la condición de persona beneficiaria, teniendo en cuenta los requisitos que sean de apreciación automática y cuya concurrencia no requiera de ninguna valoración. Dichos requisitos son los

aipatutako dokumentuen bidez egiaztatu beharko dira (eskaria eta aurkeztu beharreko agiriak).

**8.2.** Eskariak aurkezteko epea amaitu ondoren, onartutako eta baztertutako pertsonen behin-behineko zerrenda argitaratuko da <https://bilbaoeuskaraz.bilbao.eus/> atarian, kasu bakoitzari dagozkion baztertzeko arrazoiak zehaztuta.

**8.3.** Baztertutako eskatzaileek **10 egun balioduneko epea** izango dute zuzentzeko. Zuzentzen ez badu, eskaeran atzera egin duela ulertuko da, horretarako ebazpena eman ondoren.

**8.4.** Zuzentzeko epea bukatuta, onartutako eta baztertutako pertsonen behin betiko zerrenda argitaratuko da <https://bilbaoeuskaraz.bilbao.eus/> atarian, kasu bakoitzari dagozkion baztertzeko arrazoiak zehaztuta.

Onartutako pertsonen behin betiko zerrendan egoteak ez du esan nahi dirulaguntza esleitu zaienik, baizik eta aurkeztutako dokumentazioa zuzena dela eta balorazio fasera igaroko direla.

## **9. ARTIKULUA. BALORAZIO PROZEDURA**

**9.1. Egiaztatzea:** Euskarako Zuzendaritzak ofizioz egingo ditu eskatzaileak aprobetxamenduko eta asistentziako baldintzak betetzen dituela zehaztu, ezagutu eta egiaztatzeko behar dituen jarduketak.

**HABE** (Helduen Berreuskalduntzerako Alfabetatze eta Erakundea) da

mencionados en el artículo 3 (requisitos de admisión), y deberán ser acreditados mediante los documentos mencionados en el artículo 6 (solicitud y documentación a aportar).

**8.2.** Finalizado el plazo de presentación de solicitudes, se hará pública en el portal <https://bilbaoeuskaraz.bilbao.eus/> una lista provisional de personas admitidas y excluidas, y los motivos de la exclusión para cada caso.

**8.3.** Las personas excluidas dispondrán de un **plazo de 10 días hábiles** para realizar la subsanación. Si no realiza la subsanación, se las tendrá por desistidas de su petición, previa resolución.

**8.4.** Finalizado el plazo para la subsanación, se hará pública en el portal <https://bilbaoeuskaraz.bilbao.eus/> la lista definitiva de personas admitidas y excluidas, y los motivos de la exclusión para cada caso.

La inclusión en la lista definitiva de personas admitidas no implica la concesión de la ayuda, sino que la documentación presentada es correcta y que pasarán a la fase de valoración.

## **ARTÍCULO 9. PROCEDIMIENTO DE VALORACIÓN**

**9.1. Comprobación:** La Dirección de Euskera realizará de oficio las actuaciones que considere necesarias para determinar, conocer y comprobar que la persona solicitante cumple las condiciones de aprovechamiento y asistencia.

**HABE** (Instituto para la Euskaldunización y Alfabetización de Adultos) es el organismo oficial

aprobetxamenduko eta asistentziako datuak ziurtatuko dituen erakunde ofiziala.

Ez badatoz bat eskatzaileak adierazitako datuak eta HABEk ziurtatutako datuak, HABEk ziurtatutako datuak gailenduko dira.

Euskarako Zuzendaritzak HABEri eskatuko dio eskatzaileen euskara-ikaskuntzako prozesuari buruzko datuak emateko, euskaltegian izandako aurrerapenari lotuta eta soilik datu horiek hartuko dira kontuan. Beraz, diruz lagunduko dira bakarrik euskaltegietan gainditutako azpimailak. Ez dira diruz lagunduko HABEren azterketa ofizialetan egiaztatutako mailak.

Dirulaguntza deialdi honetan parte hartzeak berarekin dakar eskatzaileak berariaz ontzat eman dituela oinarri hauek eta baimena ematen diola batetik, Euskarako Zuzendaritzari, gainfinantzaketarik egon den ziurtatzeko beharrezko den informazioa eska diezaien HABEri eta gainerako erakunde publikoei, eta bestetik, HABEri eta gainerako erakunde publikoei informazioa Euskarako Zuzendaritzari emateko ere.

**9.2. Instrukzioa eta balorazioa:** Euskarako Zuzendaritza arduratuko da prozeduraren instrukzioaz. Balorazio Batzordea kide anitzeko organoa da eta hauek dira kideak:

- Batzordeburua: Euskarako, Herritarren Arreta eta Partaidetzako, 2030 Agendako eta Nazioarteko Gaietako Saileko Zinegotzi Ordezkaria.
- Idazkaria: Euskarako zuzendaria.
- Kidea: euskara teknikaria.

Eskariak aztertuta, Balorazio Batzordeak balorazioen txostena aurkeztuko du.

que certificará los datos de aprovechamiento y asistencia.

En el caso de discrepancia entre los datos aportados por la persona solicitante y los datos certificados por HABE, prevalecerán los datos certificados por HABE.

La Dirección de Euskera solicitará a HABE los datos sobre el proceso de aprendizaje de euskera, relacionados con el avance obtenido en el euskaltegi y solamente se tendrán en cuenta dichos datos. Por tanto, solo se subvencionarán los subniveles aprobados en el euskaltegi. No se subvencionarán los niveles acreditados en los exámenes oficiales de HABE.

La participación en esta convocatoria de subvención implica que la persona solicitante expresamente asume las presentes bases y que autoriza por un lado a la Dirección de Euskera para la consulta a HABE y a otras administraciones públicas de la información necesaria a fin de verificar la existencia de sobrefinanciación, y por otro lado a HABE y a otras administraciones públicas para facilitársela a la Dirección de Euskera.

**9.2. Instrucción y valoración:** La Dirección de Euskera se encargará de la instrucción del procedimiento. La Comisión de Valoración actúa como órgano colegiado y estará formado por:

- Presidencia: Concejala Delegada del Área de Euskera, Atención y Participación Ciudadana, Agenda 2030 e Internacional.
- Secretaría: Directora de Euskera.
- Vocalía: un/a técnico/a de euskera.

Evaluada las solicitudes, la Comisión de Valoración presentará un informe con las valoraciones.

**9.3. Behin-behineko erabaki-proposamena:** Euskarako Zuzendaritzak, organo instrukzio-egileak, behin-behineko erabakiaren proposamena egingo du, emandako eta ezetsitako dirulaguntzekin. Horretarako, kontuan hartuko dira espedientea eta Balorazio Batzordearen txostena.

Behin-behineko erabakiaren proposamena <https://bilbaoeuskaraz.bilbao.eus/> atarian argitaratuko da, eta **10 egun balioduneko epea** zabalduko da alegazioak aurkezteko.

Behin-behineko erabakiaren proposamenak ez du proposatutako onuradunaren aldeko inolako eskubiderik sortzen Administrazioaren aurrean, harik eta dirulaguntzak emateko behin betiko erabakia argitaratzen den arte.

**9.4. Behin betiko erabaki-proposamena:** Entzunaldia bukatuta, Euskarako Zuzendaritzak, instrukzio-organoa gisa, behin betiko erabaki-proposamena egingo du, Gobernu Batzordeak ebatzi dezan.

## **10. ARTIKULUA. EBAZPENA ETA JAKINARAZPENA**

**10.1.** Gobernu Batzordeak dirulaguntzak ematea eta ukatzea zehaztuko duen prozedura ebazteko akordioa emango du.

**10.2. Ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea:** 6 hilabetekoa, deialdia argitaratzen denetik. Jakinarazi egingo dira emandako eta ukatutako dirulaguntzak. Epe barruan ebatzi ez bada, eskaria ezetsizat joko da.

**10.3. Jakinarazpenaren lekua:** <https://bilbaoeuskaraz.bilbao.eus/> atarian argitaratzeaz gain, eskatzaileak edo ordezkariak eskarian adierazi duen helbidean eta egoitza

**9.3. Propuesta de resolución provisional:** La Dirección de Euskera como órgano instructor formulará la propuesta de resolución provisional, que establece cuáles son las ayudas concedidas y las denegadas, teniendo en cuenta el expediente y el informe de la Comisión de Valoración.

Dicha propuesta de resolución provisional se hará pública en el portal <https://bilbaoeuskaraz.bilbao.eus/>, y se concederá un plazo de **10 días hábiles** para presentar alegaciones.

La presente propuesta de resolución provisional no crea derecho alguno a favor del beneficiario propuesto frente a la Administración, mientras no sea publicada la resolución definitiva de concesión.

**9.4. Propuesta de resolución definitiva:** Finalizado el trámite de audiencia, la Dirección de Euskera, como órgano instructor, formulará la propuesta de resolución definitiva, para que resuelva la Junta de Gobierno.

## **ARTÍCULO 10. RESOLUCIÓN Y NOTIFICACIÓN**

**10.1.** La Junta de Gobierno dictará el acuerdo de resolución del procedimiento que determinará las concesiones y denegaciones.

**10.2. Plazo máximo para resolver y notificar:** 6 meses desde la publicación de la convocatoria. Se notificarán las ayudas concedidas y denegadas. La falta de resolución en plazo tendrá carácter desestimatorio.

**10.3. Lugar de notificación:** Además de la publicación en el portal <https://bilbaoeuskaraz.bilbao.eus/>, también se notificará en el domicilio señalado en la solicitud por

elektronikoan ere jakinaraziko da. Adierazitako helbidean jakinarazterik ez badago, jakinarazpena "Estatuko Aldizkari Ofizialean" argitaratuko da, 39/2015 Legearen arabera.

**10.4.** Gobernu Batzordearen akordioak administrazio-bidea amaitzen du eta beraren aurka errekurtsio hauek aurkez daitezke:

- **Aukerako berraztertze errekurtsioa**, Gobernu Batzordearen aurrean, hilabeteko epean, ebazpena interesdunaren helbidean jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.
- **Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa** dagokion Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, 2 hilabeteko epean, ebazpena interesdunaren helbidean jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

## **11. ARTIKULUA. DIRULAGUNTZA ORDAINTZEA**

**Ordaintzeko epea:** 30 egunekoa, dirulaguntza onartu denetik.

**Ordaintzeko modua:** banku-transferentzia eginda eskatzaileak eskaera orrian adierazitako kontu-korrente zenbakian.

## **12. ARTIKULUA. BATERAGARRITASUNA BESTE DIRULAGUNTZA BATZUEKIN**

**12.1.** Bilboko Udalak emandako dirulaguntza bateragarria da HABEk emandakoarekin.

Era berean, bateragarria da beste administrazio edo erakunde publiko zein pribatu batzuek ematen dituzten dirulaguntzekin (adibidez, Osakidetza, Elkargo Profesionalak, enpresa pribatuak...).

la persona solicitante o representante, y en la sede electrónica. Si no se puede notificar en el domicilio señalado, se publicará la notificación en el «Boletín Oficial del Estado», según la Ley 39/2015.

**10.4.** Contra el acuerdo de la Junta de Gobierno, que pone fin a la vía administrativa, se pueden presentar:

- **Recurso potestativo de reposición** ante la Junta de Gobierno, en el plazo de 1 mes desde el día siguiente a la notificación de la resolución en el domicilio señalado por la parte interesada.
- **Recurso Contencioso-Administrativo** ante el Juzgado de lo Contencioso Administrativo que corresponda, en el plazo de 2 meses desde el día siguiente a la notificación de la resolución en el domicilio señalado por la parte interesada.

## **ARTÍCULO 11. ABONO DE LA AYUDA**

**Plazo de abono:** 30 días desde la concesión de la ayuda.

**Forma de abono:** mediante transferencia bancaria a la cuenta corriente señalada por la persona solicitante en la hoja de solicitud.

## **ARTÍCULO 12. COMPATIBILIDAD CON OTRAS AYUDAS**

**12.1.** La ayuda concedida por el Ayuntamiento de Bilbao es compatible con la concedida por HABE.

Asimismo, es compatible con las ayudas concedidas por otras administraciones o entes públicos o privados (por ejemplo, Osakidetza, Colegios Profesionales, empresas privadas...).

**12.2.** HABEK, beste administrazio edo erakunde publiko zein pribatu batzuek eta Bilboko Udalak esleitutako dirulaguntzen baturak ezin du gainditu 2025-2026 ikasturteko matrikulen guztizko aurrekontua.

Bilboko Udaleko deialdiaren arabera aprobetxamendu-baldintzak betetzen dituzten ikastaroengatik dagokion diru-kopuruari HABEK zein beste administrazio edo erakunde publiko zein pribatu batzuek esleitu dioten diru-kopurua kenduko zaio.

**12.3.** HABEK 2025-2026 ikasurterako emandako dirulaguntza kontuan hartuko da gainfinantzazioa saihesteko, HABEK diruz lagundutako euskara maila edozein dela ere, euskara ikasteko prozesua bere osotasunean hartuz.

### **13. ARTIKULUA. EMANDAKO DIRULAGUNTZEN PUBLIZITATEA**

Emandako dirulaguntza guztiak Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitaratuko dira, 38/2003 Legearen arabera.

### **14. ARTIKULUA. DATUEN BABESA**

Bilboko Udaleko Euskarako Zuzendaritzak Euskadiko Toki Erakundearen apirilaren 7ko 2/2016 Legeak ezarritakoaren arabera tratatzen ditu datu pertsonal hauek, euskara ikasteko eskariak eta horretarako dirulaguntzak kudeatzeko orduan. Datu horiek beste erakunde publiko batzuei jakinarazi ahal izango zaizkie, eskatzaileek emandako datuak egiaztatzeko, eta bereziki Gizarte Segurantzako erakundeek, ogasun publiko eta zergen arloko administrazioari eta HABEri. Interesdunak datuetan sartzeko, zuzentzeko, ezerezteko, tratamendua mugatzeko eta aurka egiteko eskubideaz baliatu daitezke, Udalera idazki bat bidalita edo herritarrei informazioa emateko puntuetan. Era berean,

**12.2.** La suma de las subvenciones concedidas por HABE, por otras administraciones o entes públicos o privados y por el Ayuntamiento de Bilbao no puede superar el presupuesto total de las matrículas del curso 2025-2026.

A la cantidad de dinero que corresponde por los cursos que cumplen los requisitos de aprovechamiento según la convocatoria del Ayuntamiento de Bilbao se le restará la cantidad de dinero concedida por HABE o por otras administraciones o entes públicos o privados.

**12.3.** La subvención otorgada por HABE para el curso 2025-2026 será tenida en cuenta para evitar la sobrefinanciación, independientemente del nivel de euskera subvencionado por HABE, tomando el proceso de aprendizaje de euskera en su conjunto.

### **ARTÍCULO 13. PUBLICIDAD DE LAS AYUDAS CONCEDIDAS**

Todas las ayudas concedidas deberán publicarse en la Base de Datos Nacional de Subvenciones según la Ley 38/2003.

### **ARTÍCULO 14. PROTECCIÓN DE DATOS**

La Dirección de Euskera del Ayuntamiento de Bilbao, en el ámbito de la gestión de las solicitudes y concesión de las ayudas por aprendizaje de euskera, trata estos datos personales de acuerdo a la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi. Estos datos podrán ser comunicados a otras Administraciones Públicas para la verificación de los datos aportados y especialmente a Organismos de la Seguridad Social, Hacienda pública y administración tributaria y a HABE. La persona interesada tiene derecho de acceso, rectificación, supresión de sus datos, y la limitación u oposición a su tratamiento enviando un escrito al Ayuntamiento o en los Puntos de Atención de la

eskubidea dago Datuak babesteko Euskal Agentzian erreklamatzeko. Informazio gehiago eska dezakezu Bilboko Udalaren Euskarako Zuzendaritzan.

## **15. ARTIKULUA. ARAUTEGIA**

Prozedura honek lege-arau hauek beteko ditu:

- **38/2003 Lege Orokorra**, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.
  - 13. artikulua. Onuradun edo erakunde laguntzaile izateko baldintzak.
  - 14. artikulua. Onuradunen betebeharrak.
  - 20. artikulua. Dirulaguntzen Datu Base Nazionala (DDBN).

Eta horiek garatzen dituzten arauak:

- Bilboko Udalak eta haren zuzenbide publikoko erakundeek deialdi bidez dirulaguntzak emateko oinarriak arautzen dituen **Ordenantza Orokorra** (2016ko uztailaren 20ko BAO, 138 zk.).

Hauetan ezarritakoa ere aplikatuko da:

- Abenduaren 5eko **3/2018 Lege Organikoa**, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa.
- **2/2012 Lege Organikoa**, apirilaren 27koa, Aurrekontu-egonkortasunari eta Finantza-iraunkortasunari buruzkoa.
- Eusko Legebiltzarraren **1/2023 Legegintzako Dekretua**, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testuategina onartzen duena, eta gainerako araudi osagarriak.
  - 27. artikulua. Elkarteak eta erakundeak.

ciudadanía del Ayuntamiento de Bilbao. Igualmente se dispone del derecho a reclamar ante la Agencia Vasca de Protección de Datos. Puede ampliar información en la Dirección de Euskera del Ayuntamiento de Bilbao.

## **ARTÍCULO 15. NORMATIVA APLICABLE**

El procedimiento se ajustará a lo regulado en:

- **Ley 38/2003**, de 17 de noviembre, General de Subvenciones
  - Artículo 13. Requisitos para obtener la condición de beneficiario o entidad colaboradora.
  - Artículo 14. Obligaciones de los beneficiarios.
  - Artículo 20. Base de Datos Nacional de Subvenciones (BDNS).

Y en la normativa reglamentaria que la desarrolla:

- **Ordenanza General Reguladora** de las bases para la concesión de subvenciones mediante convocatoria por el Ayuntamiento de Bilbao y sus organismos y entidades de derecho público (B.O.B. nº 138 de 20 de julio de 2016).

Asimismo será de aplicación lo dispuesto en:

- **Ley Orgánica 3/2018**, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales.
- **Ley Orgánica 2/2012**, de 27 de abril, de Estabilidad Presupuestaria y Sostenibilidad Financiera.
- **Decreto Legislativo 1/2023**, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres, del Parlamento Vasco, y demás normativa complementaria.
  - Artículo 27. Asociaciones y organizaciones.

- |   |  |
|---|--|
| <ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>19/2013 Legea</b>, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa. <ul style="list-style-type: none"> <li>• I. Titulua. Jarduera publikoaren gardentasuna.</li> </ul> </li> <li>- <b>39/2015 Legea</b>, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. <ul style="list-style-type: none"> <li>• 16. artikulua: Erregistroak.</li> <li>• 44. artikulua: Jakinarazpen hutsegina.</li> </ul> </li> <li>- <b>2/2016 Legea</b>, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.</li> <li>- <b>1/2013 Legegintzako Errege Dekretua</b>, azaroaren 29koa, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko eskubideen Lege Orokorraren testu bategina onartu duena. <ul style="list-style-type: none"> <li>• II. TITULUA: Aukera-berdintasuna eta diskriminaziorik eza</li> </ul> </li> <li>- <b>72/2008 Dekretua</b>, apirilaren 29koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta bere erakunde autonomiadunen erregistroen sorrera, antolaketa eta funtzionamenduari buruzkoa.</li> </ul> | <ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>Ley 19/2013</b>, de 9 de diciembre, de transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno. <ul style="list-style-type: none"> <li>• Título I. Transparencia de la actividad pública.</li> </ul> </li> <li>- <b>Ley 39/2015</b>, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas. <ul style="list-style-type: none"> <li>• Artículo 16: Registros.</li> <li>• Artículo 44: Notificación infructuosa.</li> </ul> </li> <li>- <b>Ley 2/2016</b>, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi.</li> <li>- <b>Real Decreto Legislativo 1/2013</b>, de 29 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley General de derechos de las personas con discapacidad y de su inclusión social. <ul style="list-style-type: none"> <li>• TÍTULO II: Igualdad de oportunidades y no discriminación</li> </ul> </li> <li>- <b>Decreto 72/2008</b>, de 29 de abril, de creación, organización y funcionamiento de los registros de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y sus Organismos Autónomos.</li> </ul> |
|---|--|